



**Arartekoaren 12/2011 Gomendio orokorra, abenduaren 28koa.**  
**Demokrazia eta herritarrek parte hartzea. Bereziki, ingurumen-prozesuetan parte hartzea.**

## **I. Aurrekariak**

Herritarrek gai publikoetan parte hartzea demokraziaren funtsa da. Zuzenbide Estatu sortu zenetik, boterea gauzatzetik eratorri diren erabakiak herritarrek betearazi dituzte, zuzeneko edo ordezkartzako hainbat sistemaren bidez. Zentzu horretan, demokrazia ordezkatzaileraren eredu hegemonikoa izan da estatu liberalik gehienetan, zuzeneko demokrazia dagoen salbuespen gutxi batzuekin. Denborarekin, eredu hau krisian sartzen hasi da. Hautatutako ordezkariak boterea emateak herritarrek eta erakunde publikoak elkarrengandik urruntzea ekarri du. Horri beste faktore batzuk gaineratu behar dizkiogu, adibidez, gizarte estatu bat ezartzean eratorri diren arazo publikoak gehitzea, edo arazo publikoak kudeatzen dituen administrazio publikoak eredu burokratiko eta hierarkizatua edukitzea. Arrazoi horiek azaltzen digute zergatik sortu diren XX. mendean zehar gardentasun handiagoko eskaera eta herritarren eta gizarte zibilaren parte hartze handiagoko eskaera. Azken aspaldi honetan Espainiar Estatuan sortu diren zenbait herritar-mugimendu berariaz aipatu behar ditugu<sup>1</sup>. Mugimendu horiek herritarren parte-hartze ereduaren erreformak egin beharraz jardun dute.

Eskaera horri erantzunez, erakunde publikoek zenbait proposamen egin dituzte, herritarrek erabaki-prozesuetan konfiantza izan dezatela lortzeko, eta prozesu horiei zilegitasun sozial handiagoa emateko. Horra hor, adibidez, Europako erakundeetan garatu diren zenbait printzipio, hala nola, administrazio onaren eskubidea EB-ko politikak garatzeko, edo gobernu onaren printzipioak, gobernatze demokratikoan oinarrituak.

Parte hartze politikoa hobetzeko formulak zuzeneko demokraziaren eta demokrazia ordezkatzaileraren eremuan planteatu dira. Proposamenek erreformak planteatzen dituzte erreferendumen eraketan, herri-ekimenean eta legeak onartzeko prozesuetan parte hartzeko mekanismoak sartzean. Gainera, esan behar dugu arazo publikoetan parte hartzeko hirugarren espazio bat dagoela. Gomendio hau espazio horri buruzkoa da: demokrazia parte hartzaileaz ari gara. Eredu honetan, Auzitegi Konstituzionalak adierazi du herritarrek administrazioaren jardunetik ondorioztatzen diren erabakietan parte hartu behar dutela. Eredu horren helburua norbanakoen eta taldeen interesei kasu egiteko bideak sortzea da, horrela erabaki publikoak aberasteko eta zilegitasuna emateko. Taldeen interesei dagokienez, parte hartzeak laguntzaile irmoa du antolatutako gizarte zibilean. Era berean, parte

---

<sup>1</sup> <http://www.democraciarealya.es/> <http://www.democraciaparticipativa.es/>



hartzeko eskubide hau estu-estu lotuta dago gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari. Gai hau Arartekoak aztertua du dagoeneko, [6/2010 gomendioan](#) hain zuzen ere, dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz eta gardentasunari buruz egina. Bereziki, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeari ari gara.

Gomendio honetan, pentsatu dugu egokia dela parte hartzea bereziki interesgarria den arazo publiko baten inguruan kokatzea: ingurumena. Gai honetan izan da, hain zuzen ere, kolektibo eta eragile sozialek parte hartzea gehien eskatu duten arloetako bat. Eremu honetan, nazioarteko tresna juridikoek (Rioko Gailurra, NBERen 21 Agenda Ingurumenerako eta Aarhuseko Hitzarmena) parte hartzearen aldagaia sartu dute ingurumenean eragina daukaten erabakiak hartzean.

Parte hartzearen garrantzia toki mailan ere adierazten da. Gure autonomi erkidegoan sortutako ingurumeneko gatazkek, bide azpiegitura handiei dagokienez, hiri hondakinen kudeaketari dagokionez, edo hiri garapen berriei dagokienez, gizarte gatazka garrantzitsuak ekarri dituzte. Ingurumena babesten duten talde eta kolektiborik gehienek parte hartze handiagoa eskatu dute prozesu hauetan, bereziki, erabakirik hartu baino lehen. Nolabait, prozesu horien parte hartze ezak gatazkek enkistatzea ekarri dute. Hori gure gogoeten abiapuntua izan behar da. Parte hartzea ez da eragozpena erabakiak hartzeko prozesuan, baizik eta erabaki publikoak eta herritarren artean duten zilegitasuna hobetzeko eta haien egokitasuna bermatzeko aukera. Horregatik, parte hartzeko formula egokiak aitortzea ez da arazoa izan behar, baizik eta intentsitate handiko demokrazia batek eskatzen dituen konponbideen beste alderdi bat<sup>2</sup>

Gomendio honen xedea herritarren parte-hartzearen printzipioak gure antolamendu juridikoan jasotzea da. Horretarako, erakunde honek gai honetan azken urteetan bildu duen eskarmentua aintzat hartzeko modukoa da, batez ere ingurumenaren inguruko erabakietan. Aurrekari horiek ikusita, parte hartze publikoak bermatu behar dituen zenbait printzipio planteatuko ditugu eta hainbat gomendio proposatuko ditugu.

## II. Parte hartzeko eskubidea gure antolamendu juridikoan

- [Espainiako Konstituzioak](#) parte hartzearen printzipioa sartzan du Atariko Tituluan. 9.2 artikulua azaltzen du botere publikoei dagokiela bideak jartzea herritar guztiek bitzitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartu ahal izateko. Edukia funtsezko betekizun gisa interpretatu behar da zuzenbide estatu demokratikoaren definiziotik eratortzen diren botereak eta funtzio publikoak betetzerakoan, balio gorenaren pluraltasun politikoarekin bat etorriz.

---

<sup>2</sup> "Demokrazia eta herritarrek parte hartzea". I. Lamarca. Ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan herritarrek parte hartzean argitaratua. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: [Herritarren partaidetza: Fikzioa ala errealitatea?](#)



Auzitegi Konstituzionalak<sup>3</sup> arazo publikoetan parte hartze politikoa izateko eskubidea mugatu du, bi eremutan. Batetik, 23. artikuluan jasotzen denez, parte hartze politikoa herri-subirautzatik sortutako botereak gauzatzetik sortzen diren arazo publikoetan parte hartzeko funtsezko eskubidea dela dio. Eskubide hau bi modutan adierazten da: zuzenean (erreferenduma, herri-ekimena) eta modu ordezkatzailan, botere legegilea gauzatzeko ordezkariak aukeratuz. Bestalde, hirugarren modu bat onartzen du, demokrazia parte hartzailea alegia, administrazioaren jardunean parte hartzeko eskubidea den aldetik.

Konstituzioak administrazio parte hartzearen eskubidearen edukia 105. artikuluan aipatzen du. Xedapen honek aurreikusten duenaren arabera, herritarrek administrazio xedapenak egiteko prozeduran (zuzenean edo elkarte bidez) entzunak izateko eta interesdunek administrazio egintzak egitean entzunak izateko duten eskubide honen edukia arautuko du legeak, bidezkoa denean, interesdunari entzunaldia emango zaiola bermatzen. Eskubide hau herritarrek beren ahotsa entzunarazteko dauzkaten tresnetako bat da, beraiengan eragina duten erabakiak hartzen direnean. Eskubide hori administrazioaren jardunean parte hartzea da, izaera funtzionalekoa edo prozedura-izaerakoa, eta prozeduraren zuzentasuna eta herritarren eskubide eta interes legitimoak gauzatzea bermatzen ditu. Haren helburua ukituak izan daitezkeen pertsonen norbanakoen nahiz taldeen interesak defendatzeko bidea ematea da. Horrela, pertsona horiek beren iritziak zuzendu ahal dituzte, administrazioarentzat informazio-iturri izateko eta hartuko den neurriaren egokitasuna eta zuzentasuna mesedetzeko. Nolanahi ere, garrantzitsua da esatea informazio publikoaren izapidearen bidez, Auzitegi Konstituzionalaren arabera, *"erabaki publikoei nolabaiteko herri-zilegitasuna ematen zaiela"*.

- Oro har, [azaroaren 26ko 30/1992 Legean](#), Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, Konstituzioko manu hori garatu da.

Batetik, 3. artikuluan azaltzen da administrazio publikoek gardentasunaren eta parte hartzearen printzipioak bete behar dituztela herritarrekin dituzten harremanetan.

Parte hartze printzipio hori, besteak beste, herritarrak prozeduran interesdun diren gaiei dagokie. 31. artikulua agintzen duenez, gaian interes legitimoa (norbanakoarena nahiz taldearena) daukaten pertsona fisikoak eta elkarteak dira interesdunak.

35. artikuluan, herritar guztiek administrazioekiko harremanetan eskubide hau daukatela aipatzen da: *"Alegazioak egiteko eta dokumentuak aurkezteko eskubidea, entzunaldi izapidearen aurreko prozeduraren aurreko fasean. Alegazio eta dokumentu horiek aintzat hartu behar ditu organo eskudunak ebazpen proposamena idazten duenean"*.

---

<sup>3</sup> Auzitegi Konstituzionalaren uztailaren 17ko 119/1995 epaia, RTC\1995\119



Administrazio prozedurari dagokionez, interesdunen parte hartzea zenbait xedapenen bidez arautzen da:

- Instrukzio egintzetan, entzunaldi izapideen aurretik egin beharrekoak, 78. artikulua arabera, interesdunek jarduketak egiteko, alegazioak aurkezteko, eta dokumentuak edo bestelako judizio-elementuak aurkezteko eskubidea daukate. Horiek denak kontuan izan behar ditu organo eskudunak, ebazpen proposamena idazten duenean.
- Entzunaldi izapidea. 84. artikulua aurreikusten duenez, prozedura instruitu ondoren, entzunaldi izapidea hasi behar da interesdunentzat. Izapide horretan, espedientean dagoen dokumentazioa eskuratu ahal dute eta alegazio egokiak egin.
- Jendaurreko informazioa. Prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, instrukzio-organok jendaurrean informazioa emateko denboraldi bat ematea erabaki dezake, prozedura aztertzeo eta alegazioak aurkezteko. Horretarako, aldizkari ofizial egokian argitaratuko da. Legearen arabera, izapide honetan alegazioak edo oharrak aurkezten dituzten pertsonak eskubidea dute administrazioarengandik erantzun arrazoitua jasotzeko; halere, horregatik ez dute zertan interesdun izaera jaso behar.
- Mekanismo horiez gain, administrazio publikoek xedapenak eta administrazio egintzak prestatzeko prozeduran herritarrek parte hartzeko beste modu, bitarteko eta bide batzuk sor ditzakete, zuzenean edo erakunde eta elkarteen bidez.
- Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak interesdunek planteatutako auzi guztiei buruz erabakiko du. Zentzu horretan, erabakia bat etorri behar da prozeduran azaldutako auziekin. Legeak baimentzen dituen aldagaietako bat bukaera konbentzionala da. Administrazio publikoek, herri intereserako bada, akordioak hitzartu ahal dituzte, baldin eta antolamendu juridikoaren aurkakoak ez badira edo transakzioa jasan ahal duten gaiei buruzkoak ez badira. Ebazpen modu honek pertsonen eta elkarteen bide ematen die erabakiak hartzeko.

Administrazio prozedurako arau horrek parte hartzeko eskubidearen oinarriko edukia ahalmen eta funtzio publikoen gauzapenean sartzen du. Zehaztu behar dugu arau honetan parte hartzea prozeduraren exijentzia bat dela, erabakiak hartzean interesdunek alegazioak sartu ahal izateko. Alegazio horiek, betiere, behar bezala baloratu behar ditu organo eskudunak.

- Parte hartzeko eskubide hau legebiltzarkide autonomiko batzuek garatu dute. Generalitateen [2008ko uztailaren 3ko 11/2008 Legeak](#), Valentziar Komunitatearen Herritarren Parte-Hartzeari buruzkoak, herritarren parte-hartzea (norbanakoarena nahiz taldeena) arautzen eta sustatzen du. Arau honek



zenbait ekintza aurkezten ditu, herritarren parte-hartzea herritarrei entzunez, kontsulta-foroen bidez, herritar-panelen bidez eta herritarren epaimahaien bidez gauzatzeko asmoarekin. [Ekainaren 21eko 5/2010 Legeak](#), Kanarietako Herritarren Parte-Hartzea Sustatzeari buruzkoak, herritarren parte-hartzea sustatzeko helburuarekin, antzeko tresnak eskaintzen ditu.

- Era berean, tokiko eremuan, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen [apirilaren 2ko 7/1985 Legeak](#) 69. artikuluan tokiko korporazioentzako agindu bat sartzen du, herritar guztiei udalerriko bizitzan errazteko asmoarekin. Hartara, udal guztiek arau organikoak, prozedurak eta organoak eduki behar dituzte, bizilagunek tokiko bizitza publikoko gaietan benetan parte hartu ahal izateko egokiak. Aurreikusten diren prozeduren barruan, bizilagunen interesentzat bereziki garrantzitsuak diren udal eskumeneko gaiak buruzko herri ekimena eta herri kontsulta aipatzen ditu. Gainera, kontzentratu gabeko kudeaketako lurralde organoen sorrera planteatzen du, herritarren parte-hartzea errazteko helburuarekin. Era berean, legeak agintzen du bizilagunen interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko elkarrean garapena eta sustapena mesedetu beharra dagoela.
- Lege honen ondoren, herritarren parte hartzeko eskubidearen arauketak sektore-garapena jasan du, gai zehatzetan (edo sektorialetan) eragina duten arauen bidez. Hirigintzaren eremuaren barruan, [uztailaren 20ko Legegintzako 2/2008 Errege Dekretuak](#), Lurraren Legearen testu bat egina onesten duenak, herritar guztiek hirigintzako prozeduretan benetan parte hartzeko duten eskubidea sartzen du 4.e) artikuluan. Eskubide horren barruan, alegazioak egitea eta administrazioarengandik erantzun arrazoitua jasotzea sartzen dira. EAEn, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legean, herritarrek antolamendu planak egiteko prozesuetan parte hartzeko duten eskubidea arautu da, herritarrek parte hartzeko programen figuraren bidez eta Plangintzako Aholku Batzordearen bidez.

Parte hartzeko printzipio hau administrazio onaren eskubidearen barnean dago, antolamendu juridiko batzuek barneratu dutena. Eskubide hori, zehazki, Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunean ([Nizako Gutuna](#) esan ohi zaiona) aipatzen da, 41. artikuluan hain zuzen ere. Eskubide honek adierazten du EB-ko erakundeek beren gaiak modu inpartzian eta zuzenean jorratu behar dituztela. Hala, aurkako neurri bat hartu aurretik entzuna izateko eskubidea eta administrazioak bere erabakiak arrazoitze duen betebeharra aipatzen ditu. Bestalde, printzipio honi zuzenean lotuta gobernu onaren printzipioa dago. [Europar gobernantzari buruzko liburu zuria](#) delakoaren arabera, parte hartzeko printzipioa gobernu ona ezartzeko oinarritzko printzipioetako bat da. Horrela, Europar Batasunaren politiken kalitateak, egokitasunak eta eraginkortasunak herritar guztien parte hartze zabala eskatzen dute prozesuaren fase guzti-guztietan, politikak asmatzen direnetik aplikatzen direnera arte. Beste dokumentu interesgarri bat Batzordearen komunikazio bat da: "Batzordeak gogoeta egiteko tarteari eta geroari egindako ekarpena: demokrazia, elkarrizketa eta eztabaidarako D Plana,



COM/2005/0494 amaiera. Komunikazio horrek azaltzen du parte hartzeak informazioa, kontrola, negoziazioa eta erabakiak elkarrekin hartzea eskatzen dituela; beraz, hori da gaur egun gobernu onak dauzkan erronketako bat.

- Nazioarteko beste tresna batean, 1985eko urriaren 15eko Tokiko Autonomiaren Europar Gutunean alegia, aitzinsolasean adierazten da herritarrek eskubidea daukatela gai publikoen kudeaketan parte hartzeko; hori Europako Kontseiluko estatu kide guztien printzipio demokratikoetako bat da.

Euskal Autonomia Erkidegoko udal batzuek herritarrek parte hartzeko araudiak onartu dituzte, parte hartzeko mekanismoak arautu ahal izateko. Hor ditugu [Busturia](#), [Llodio/Laudio](#), [Amurrio](#) eta [Vitoria/Gasteiz](#). Bestalde, [uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak](#), herritarren parte-hartzeari buruzkoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarrek foru aldundiaren gai publikoetan parte hartzea arautu du, kudeaketa maila bakoitzean. Xedapen horrek norbanako gisa jardunez edo parte hartzeko prozesuen bidez (hala nola eztabaida parte hartzailearen bidez edo herri-kontsulten bidez) parte hartzeko eskubidea hartzen du bere barruan.

### III. Parte hartzeko eskubidea Arartekoaren lanean

- Azken urteetan, erakunde honek zenbait aldiz aztertu ditu hirigintzan, ingurumenean eta, neurri txikiagoan, tokiko gaietan parte hartzeak sortzen dituen arazoak.

Hasitako prozesuetan parte hartzeko eragozpenak, erantzun formalen gabezia edo motibazioaren akatsak izan dira erakunde honek aztertu dituen kasuetako batzuk. Bestalde, zenbait elkarte kezkatuta agertu dira, beraien ekarpenei ematen zaien balio txikiagatik. Administrazio publiko batzuek, erabakiak hartzeko orduan, interes kolektiboak defendatzen dituzten elkarte edo taldeak interesduntzat jo beharrean, erabateko mesfidantza erakusten dute haien aurrean.

- Arazo hauek azalera ziren kasuetako bat Txingudikoa izan zen, hondakin organikoak errausteko plantaren inguruan. [Arartekoak egindako ebazpenean](#) azpiegitura hori ezartzeko erabaki-prozesuan benetako parte hartze soziala aztertu genuen. Kasu honetan, exijitu genuen ingurumenaren gaietan herritarren parte-hartzea prozeduraren hasierako fase batean eskaini behar zela, hau da, aukera eta konponbide guztiak posible direnean. Horrela, jendeak benetako eragina izango luke administrazio eskudunek legitimoki hartuko zituzten erabakietan. Era berean, herritarrek parte hartzeko organoa sortzea proposatu genuen, hondakinak kudeatzeko planaren funtzionamenduari jarraipena egin ahal izateko, plantaren izaera edo tipologia edozein izanik ere.

Herritarren iritzia jakiteko parte hartze tresnei buruz, beste ebazpen batean iradoki genuen administrazio publikoek, beren eskumenen barruan eta kasu



bakoitzerako ezarrita dagoen jardun-eremuan, herritar plataformen parte hartzea mesedetu behar zutela inkestak edo galdeketak egiteko, herritarren iritzia modu baketsuan jasotzeko balio baitute ([Arartekoaren 2006ko urriaren 11ko ebazpena](#)).

- Hiri eta gizarte eraberritze prozesuetan sortu diren arazoetan ere, gogoetarako elementua izan da herritarren parte-hartzea. Bizkaiko udalerrri bateko eremu degradatu batean egin nahi zen jarduketa baten kasuan, proposatu genuen herritarren informazioa eta parte hartzea botere publikoen aktibo bat izan behar dela, gizarte kohesioa bultzatzeko. Benetako parte hartzea lortzeko, erakundeek eta gizarteak elkar onartu eta errespetatu behar dute. Gizarte solaskideak onartzea eta haien eskaerak bideratzea litzateke helburua, prozesua baldintzatzen duten erabakietan benetan eragina izateko aukera edukitzeko moduan ([Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpena](#)).

Bizilagunen talde batek erreklamazio bat aurkeztu zuen Abanto-Zierbenako Santa Juliana auzoak bizi duen gizarte eta hiri degradazioa salatzen. Erreklamazio hori ebazteko orduan, adierazi genuen mekanismo egokiak sortu behar direla herritarren parte-hartzea eta administrazioaren lankidetzaz errazteko ([Arartekoaren 2010eko irailaren 20ko ebazpena](#)). Horri dagokionez, uste genuen administrazioek herritarrek parte hartzeko berariazko programak sustatu behar dituztela, hala nola Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan aurreikusitakoak. Hau da, jendearentzat irekiak diren saioak egitea, hainbat kontu azaltzeko: administrazioak proposatzen dituen erabakiak eta balizko alternatibak, izapidetzen ari diren hirigintzako tresnen berri emateko materiala eta herritarrek egindako ekarpenak; are gehiago, eztabaida larriak daudenean, parte hartze aktiborako bideak ezar litezke, hala nola biztanleriari kontsultak egitea. Hirigintzako erabakiak hartzeko prozesuan herritarren ekarpenak lortzeko tresna baliagarri bat Udal Plangintzako Aholku Batzordeak dira, gure erkidegoko udal askotan sortu direnak.

- Hirigintzako eremuaren barruan, hiri garapen zehatzen aurkako elkarteak sarritan saiatu dira erabakiak hartzeko prozeduretan parte hartzen. Aitzitik, azaldu digute administrazioek, kasurik gehienetan, herritarrek parte hartzeko existitzen diren mekanismoak formalki bete baino ez dutela egiten. Parte hartzea honela gauzatu da: espedientean dagoen dokumentazioa eskuratzeko aukera, antolamendu proposamena izapidetzean hasi den jendaurreko informazioko izapidean, eta erabakia hartu aurretik organo eskudunak erantzun behar dituen alegazioak aurkeztea. Zenbait ebazpenetan proposatu dugu erabakiak hartzean parte hartzea erreala eta irekia izan behar dela. Horretarako, ezinbestekoa da lankidetzaz hori prozeduraren hasieran jorratzea, aukera eta irtenbide guztiak alderatu ahal izateko eta erabakian benetako eragina eduki ahal izateko. Parte hartzeko programaren barruan, administrazioak parte hartzeko bidean lehentasuna eman behar die ingurumena babestea eta hiri garapen iraunkorra defendatzen dituzten pertsona edo elkartei. Horrela, [Bakioko Udalari zuzendutako ebazpena](#), plangintzako arau subsidiarioak





aldatzeari buruzkoa, eta [Labastidako Udalari egindako gomendioa](#), Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspen/ egokitzapenean publiko interesdunak benetan parte hartzea ahalbideratzeari buruzkoa, aipa ditzakegu.

- Arartekoak parte hartzeari buruz egindako jarduketan artean, arreta berezia jarri nahi dugu UPV/EHUK udako ikastaroetan antolatu zituen jardunaldietan, [herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea](#), Giza Eskubideen gaineko Jardunaldietan. Esku hartzeen eta herritarren foroaren artean, zenbait elkarte ekologistarekin batera, gai honi buruzko ideia batzuk proposatu genituen. Horrela, esan genuen herritarrek jakiteko erabakia eduki behar dutela. Botere publikoek herritarren parte-hartze aktiboa sustatu behar dute. Gizarte erakundeek erabaki prozeduren hasierako fasean parte hartzea bultzatu beharra dago. Parte hartzeko bide berriak bilatu behar dira. Halere, edozein modutan, parte hartzeak dauden prozedurak errespetatu behar ditu. Administrazio publiko eskudunei dagokie erabakiak hartzea. Pertsonen eskubideak bermatzeko sistema eraginkorra mantendu behar du. Azkenik, herritarrek parte hartzeko bideen kalitatea aldi berean behin ebaluatu eta hobetzen saiatu behar dira.

Finean, herritarren parte-hartzea erakunde honen helburuetako bat izan da, hirigintzako eta ingurumeneko erabakiak hartzearekin zerikusia duten arazoei heltzerakoan. Aipatutako ebazpenak jasotako iritzien frogara dira.

#### **IV. Parte hartzea ingurumeneko prozesuen barruan**

Konstituzioaren 45. artikulua araberak, ingurumena ondasun juridikoa da, eta haren gozamenaren titularrak herritar guztiak dira. Ondasun honen kontserbazioa botere publikoen eta herritarren ardura da. Botere publikoek ingurumena babesteko eta kontserbatzeko hartzen dituzten erabakiek eta administrazio prozedurek interes publikoa erakusten dute, argi eta garbi, ingurumenaren inguruko helburuak defendatzeko: kutsaduraren ingurumen kontrola, garapen iraunkorra, biodibertsitatearen babesa edo osasun publikoa. Nolanahi ere, prozesu hauetan ikuspegiak eta interesak poliedrikoak dira. Horregatik, herritarrek egin ditzaketen planteamendu guztiak entzuteko bideak sortzea ezinbestekoa da. Halaber, ingurumenaren inguruko gaietan aktiboa den gizarte zibila existitzen da. Pertsona taldeek, plataformek eta elkarteek ingurumen egokiaren defentsa aldarrikatu dute behin eta berriro, eta interes kolektibo jakin batzuk babesteko sortu dira. Ikuspegi partikular edo kolektibo hori parte hartzearen bidez eskuratzeko posibilitatea erabaki hobeak eta zuzenagoak hartzeko aukera da.

Gure antolamendu juridikoak ingurumeneko parte hartzea sartu du, nazioarteko tresna juridiko zenbaitetan oinarrituta; horrek denak nolabaiteko ingurumen-demokrazia sortu du.







- Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Biltzarrak 1992an **Rioko Adierazpena** onartu zuen. Adierazpen horrek ingurumena babesteko munduko sistemaren oinarriak ezarri ditu, garapen iraunkorreko eredu batean oinarritua. Hamargarren printzipioan planteatu zenez, *"Ingurumenari buruzko gaiak jorratzeko modurik onena interesdun herritarren parte hartzearekin egitea da, egoki den mailan"*. Bestalde, XXI. menderako programa edo agenda aurkeztu zuen. Programa horren barruan, proposatu zen tokiko agintariak kontsulta prozesu bat egin behar zutela beren biztanleekin, eta tokiko 21 programa bati buruzko adostasuna lortu beren komunitatearentzat.
- Parte hartzeko printzipio honek isla berezia dauka ingurumen gaitan informazioa eskuratzeari buruzko, erabakiak hartzean parte hartze publikoari buruzko eta justizia eskuratzeari buruzko biltzarrean, **Aarhuseko Hitzarmena** deritzona. Arau honen bidez, kide diren estatuek eskubideak behar bezala bermatzen dituzte ingurumen gaitan informazioa eskuratzeari dagokionez, erabakiak hartzean jendearen parte hartzeari dagokionez, eta ingurumen gaitan justizia eskuratzeari dagokionez, hau da, ingurumen-demokraziaren hiru zutabeetan. Parte hartzean, abiapuntua premisa hau da: informazioa hobeto eskuratzeari esker eta erabakiak hartzean jendeak parte hartze handiagoa izateari esker, *"erabakiak hobeto hartu ahal dira eta modu eraginkorragoan aplikatu. Jendea ingurumenaren arazoan inguruan sentsibilizatzen laguntzen dute, kezkak adierazteko aukera ematen diote jendeari eta agintari publikoei arazo hauek kontuan izaten laguntzen diete"*.

Hitzarmenak azaltzen du beharrezkoa dela alderdiek esparru juridiko zehatz, garden eta koherentea izan dezatela, hitzarmen honen xedapenak aplikatzeko ondorioetarako. Tresna juridiko honek ez du ekarri behar, inola ere, dauden eskubideak kaltetzea.

Xedapen orokorren barruan, funtzionarioen eta agintarien aldetik laguntza eta lankidetzaren printzipio bat sartzen da, interesdunek errazago parte hartu ahal dezaten erabakiak hartzean. Gainera, jendearen heziketa ekologikoa bideratzea eta ingurumena babesten duten elkarte, erakunde edo taldeei berariazko onarpena eta babesa ematea proposatzen da. Beren ingurumeneko eskubideak gauzatzen dituzten pertsonak ezin dira inola ere zigortu edo jazarri eta ezin zaie tratatu iraingarri eman.

Jendearen parte hartzea hiru prozedura motaren inguruan egiten da: ingurumenean ondorio esanguratsuak dituzten jardueren ingurumen kontrolari buruzko administrazio erabakiak, ingurumenaren inguruko planak, programak eta politikak eta ingurumenean ondorioak dituzten xedapen arautzaileak. Era berean, genetiki aldatutako organismoak ingurumenean modu boluntarioan zabaltzea baimentzeko prozedura beren-beregi aipatzen da.

Lehenengo kasuan, ingurumenean eragina duten proiektuak baimentzeko prozeduran parte hartzea aztertzen da. Jarduera hauek ahalbideratzen dituen





erabakiak hartzeko prozesu bat hasten denean, interesdunei prozesuaren hasieraren berri emango zaie. Lehentasuna da jendearen parte hartzea prozeduraren hasieran martxan jartzea, hau da, aukera eta konponbide guztiak posible direnean eta jendeak benetako eragina izan dezakeenean. Administrazioak proiektuaren sustatzaileak adoratu behar ditu, eskaera aurkeztu aurretik ukitutako jendea identifika dezan, helburu bikoitzarekin: eskaeraren xedearen berri ematea eta berarekin eztabaida finkatzea. Jendeak parte hartzeko prozeduraren fase guztietarako zentzuzko epeak jarri behar dira. Epe horiek denbora nahikoa eman behar dute jendeari informazioa emateko, dagoen informazioa kontsultatzeko eta lanetan benetan parte hartu ahal izateko. Prozedura honen barruan, garrantzi berezia ematen zaio jendaurrean erakusteko izapideari. Izapide honetan, oharrak, informazioa, analisiak edo iritziak aurkezteko bidea eman behar da, zenbait formatu erabiliz. Adibidez, hitzarmenak bide hauek eskaintzen ditu: idatziz, entzunaldian edo ikerketa publikoaren bidez. Azkenik, ebazpenak kontuan izan behar ditu jendearen parte hartze prozeduraren emaitzak, eta jendeari honen berri eman behar zaio ahalik eta azkarren.

Ingurumenari buruzko planak eta programak direla-eta, jendeak haiek egiteko prozesuan parte hartu behar du, "*esparru garden eta zuzen batean*" horretarako behar dituen informazioak jaso ondoren. Ingurumenari buruzko politika publikoen kasuan, alderdiek parte hartzea ahalbideratu behar dute. Ingurumenean eragin garrantzitsua izan dezaketen arauzko xedapenek edo tresna arautzaileek beren izapidetzerako prozedurak finkatu behar dituzte, fase egokian, hau da, aukerak oraindik irekita daudenean, jendearen benetako parte hartzea sustatzen dutenak.

Finean, parte hartzeko eskubideak parte hartzeko mekanismoak sortu beharra dakar. Sustatzaileak identifikatu behar ditu interesdunak (batez ere ingurumeneko elkarrekin) proiektuaz eztabaidatzeko, proiektua aurkeztu baino lehen. Parte hartze hau errealia izan behar da eta hartu beharreko erabakian eragina izan behar du; horregatik, erabakia ezin da aldeztu aurretik hartu. Parte hartzeari denbora nahikoa emateko beharrezana, behar bezala gauzatu ahal izateko, bereziki aipatzen da. Aurkezten diren oharrak entzunaldiaren bidez eta, bidezkoa bada, ikerketa publikoaren bidez kontrastatu behar ditu administrazioak. Azkenik, parte hartzea erabakian kontuan izan behar da; interesdunek erabaki horren emaitzari buruzko informazioa jaso behar dute.

- Nazioarteko tresna juridiko honek beste arau batzuen garapena ekarri du **Europar Batasunaren** eremuan. Hauek aipatuko ditugu: [Kontseiluaren 97/11/CE Zuzentaraua, 1997ko martxoaren 3koa](#), [85/337/CEE Zuzentaraua](#) (proiektu publiko eta pribatu jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoa) aldatu zuena, [Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2003/4/CE Zuzentaraua, 2003ko urtarrilaren 28koa](#), jendeak ingurumeneko informazioa eskuratzeari buruzkoa, eta [Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2003/35/CE Zuzentaraua, 2003ko maiatzaren 26koa](#), jendeak ingurumenari buruzko plan eta programa jakin batzuetan parte hartzeko





neurriak ezarri zituen, eta [Kontseiluaren 96/61/CE Zuzentaraua, 1996ko irailaren 24koa](#), (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzkoa) herritarren parte-hartzea sartu zuena.

- Bestalde, **Espainiak** Aarhuseko Hitzarmena 2004ko abenduan berretsi zuen, eta 2005eko martxoaren 31n sartu zen indarrean. Bere garapenean, [ekainaren 18ko 27/2006 Legea](#) onartu zuen; lege horren bidez, ingurumen gaietan informazioa jasotzeko, jendearen parte hartzerako eta justizia eskuratzeko eskubideak arautu ziren.

Lege horren hirugarren tituluan, ingurumen gaietan jendearen parte hartzeko eskubidea jaso zen, plan, programa eta izaera orokorreko xedapen jakin batzuk egiteari dagokionez. Era berean, ingurumenean eragina daukaten zenbait proiektutan ingurumeneko baimen integratuak emateko eta ingurumen eragina ebaluatzeko prozeduretan parte hartzea sartzen du.

Arauan aipatzen diren planak, programak eta izaera orokorreko xedapenak egiterakoan jendearen benetako parte hartzea sustatzeko helburuarekin, administrazio publikoek ziurtatuko dute jendeari dauden proposamenen berri eta erabaki prozesuetan parte hartzeko eskubidearen berri emango zaiela, ohar publikoen bidez edo bestelako bitartekoen bidez (hala nola, elektronikoak), modu ulergarrian. Prozesu hauetan, jendeak oharrak egiteko eta iritzia emateko eskubidea du, aukera guztiak zabalik daudenean eta planari, programari edo izaera orokorreko xedapenari buruzko erabakiak hartu baino lehen. Parte hartzeko prozesuaren emaitza kontuan izan behar da erabaki hauek hartzeko orduan. Azken emaitzaren berri eman beharko zaio jendeari.

- Ingurumen eraginaren ebaluazio pean dauden jardueri dagokienez, ingurumeneko parte hartzea [urtarrilaren 11ko Legegintzazko 1/2008 Errege Dekretuan](#) (proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Legearen testu bat egina onetsi zuena) eta [martxoaren 24ko 6/2010 Legean](#) (proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Legearen testu bat egina aldatu zuena) jasotzen da.

Arau horrek azaltzen duenez, administrazio publikoek interesdunen parte hartzea sustatu eta bermatuko dute ingurumen eraginaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuak baimentzeko eta onartzeko prozeduren izapidetzan, eta lege horretan aurreikusitako neurriak hartuko dituzte parte hartze hori benetakoa eta egingarria izan dadin.

- **Euskal** Autonomia Erkidegoak gai hau Ingurumenari buruzko [maiatzaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean](#) arautu zuen. Arau honek bere 3. artikuluan azaltzen du pertsona guztiek ingurumena babesteko erabakietan parte hartzeko (zuzenean edo ingurumena defendatzeko elkarte bidez) daukaten eskubidea. Era berean, ingurumenaren legerian aurreikusitakoa betearazteko ekintza publikoa jasotzen du.





Arau horrek jendearen parte hartzea aurreikusten du, jendaurreko informazioko izapidea irekiz, sailkatutako jarduera lizentzien izapidetzan, ingurumen eragineko ebaluazioetan eta ingurumenean eragin txikia duten jardueretan (salbuetsitako jardueri buruzko [165/1999 Dekretuarekin](#) bat etorritz). Legeak exijitzen du bi jarduera motetan jendaurrean jakinarazteko izapidea nahitaezkoa izan dadila.

Planei eta programei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen du. Xedapen honetan, laburrean aipatzen da interesdunen parte hartzea, entzunaldi eta informazio publikoko izapideetan interesdunek ingurumenari buruz egindako oharra eta alegazioak ingurumen eraginaren behin betiko txostenean sartuz.

Finean, euskal ingurumen araudiak, Aarhuseko hitzarmenaren ingurumeneko parte hartze ireki eta errearen artezpidiak baino lehenagokoa eta aipatutako erkidego-zuzentarauak baino lehenagokoa denak, parte hartzearen printzipioa sartu zuen ingurumena kontrolatzeko erabaketan, eta entzunaldi eta informazio publikoko prozedura-izapide orokorretan txertatu zituen.

- Parte hartze organikorako beste formula batzuk kontsulta-kontseiluen bidez ingurumen gaitan aurreikusitakoak dira. Kide anitzeko organo horien kide dira administrazio publiko egokia eta ingurumeneko eta gizarteko elkarten ordezkariak. Organo hauen kontsulta-lana ingurumen politika orokorren parte hartzeari eta jarraipenari buruz aholku eta informazioa ematea da. Administrazio eremuko zenbait adibide batzuk aipatuko ditugu, hala nola, [Ingurumen Ministerioaren Ingurumeneko Aholku Batzordea](#), [Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Aholku Batzordea](#) eta tokian tokiko bestelako aholku batzordeak ([Donostia/San Sebastián](#), [Vitoria/Gasteiz](#), Bilbo).
- Aipatutako prozedurez gain, herritarren parte-hartzea tresna egoki bihurtu da jarduera sailkatuen funtzionamenduan sortzen diren ingurumen gatazkak kudeatzeko. Ez gara ari jarduera horiek baimentzeko prozesuaz, baizik eta administrazioak baimendu ondoren eta neurri zuzentzaile egokien mende geratu ondoren ingurumenaren gaineko edo pertsonen osasunaren gaineko eragin guztiak konpontzen ez diren kasuei buruz. Kasu batzuetan, administrazio publikoek ingurumen kontrol eta ikuskapeneko eskumenak parte hartze prozesuen bidez gauzatu dituzte, hainbat formula erabiliz (jarraipen batzordea, mahaiak edo bestelako mekanismoak).

Bestalde, hiri-lurrean ekipamenduak edo jarduerak irekitzean, gizarte-erantzun aktiboa gertatzen den kasuetan sortzen diren gizarte-gatazkak konpontzeko edo murrizteko mekanismoa izan da herritarren parte-hartzea.

Bi prozeduretan, elkarteko mahai baten eraketa, alderdi interesdunek edo ukituek parte hartzeko, ingurumen informazioa zabaltzeko tresna eta proposamenak, salaketak edo bestelako aldarrikapenak aurkezteko bidea da.





Parte hartzeko mekanismo honek jarrerak hurbiltzeko edo, gutxienez, interesdunek elkar onartzeko balio izan du.

## V. Parte hartzeko printzipioak

Azaldutako araudiarekin bat etorriz, eta gai honetan interesgarria den ebazpen judizialen bat kontuan izanik, herritarren parte-hartze zuzenerako kontuan izan behar diren zenbait printzipio azaldu ahal ditugu:

- **Unibertsaltasuna.** Parte hartzea interesa duten pertsona guztien eskueran egon behar da. 30/1992 Legeak adierazten duenez, interesdunak dira beren interes legitimoetan (norbanakoarenak zein taldearenak) ebazpenak eragin ahal dieten guztiak. Ingurumenaren kasuan, zehaztu behar dugu haren babes, narriadura aurreikustea eta kaltea dagoenean berrezartzea babestu beharreko ondasun juridikoa dela, eta haren defentsa herritar guztiei dagokiela. Autonomi erkidegoaren eremuan, 3/1998 Legeak uste du pertsona guztiek eskubidea daukatela defentsan parte hartzeko, eta ekintza publikoa administrazio eta jurisdikzio bidean sartzen du. Lege honetan oinarrituta, herritar guztiak, norbanako gisa edo beste pertsona batzuekin elkartuta, balizko interesdun da euskal administrazio publikoek egiten dituzten ingurumeneko prozeduretan. Nolanahi ere, eskubide hauen gauzapena administrazioari eskatu behar zaio, salbu eta administrazioak ofizioz interesdun izaera ematen duenean, 27/2006 Legearen 2.2 artikulua terminoetan.
- **Proaktibotasuna.** Administrazioak ingurumen espedienteetako interesdunak identifikatu behar ditu, espedienteetan interesdun gisa agertzeko eskatzeko, ofizioz. Deia batez ere ingurumenaren defentsan interesa duten elkarteei zuzenduta dago, batez ere parte hartzearen xede den ingurumen prozesuaren inguruan sortu edo kokatu diren elkarteen kasuan. Jendearen parte hartze proaktiboak dagoen informazio guztia jendearen esku jartzea dakar, modu eraginkorrean esku hartu ahal dezaten denbora nahikoarekin. Era berean, gizartea aurka egon daitekeela sumatzen den kasuetan (bide azpiegitura handiak, hondakinen azpiegiturak edo bestelako ekipamendu handiak), Aarhuseko Hitzarmenak, 6.5 artikulua bidez, alde aurretik eztabaida bat egitea ahalbideratzen du, sustatzailearen eta interesdunen artean.
- **Laguntza.** Administrazioak behar diren bitartekoak eskuratu behar ditu, funtzionarioek eta agintariek jendeari laguntzeko eta aholku emateko, parte hartzea herritarrentzat errazagoa izan dadin. Laguntza hau alde aurretik egin daiteke, 3/1998 Legearen 98. artikuluan aurreikusten den ingurumen hezkuntzaren bidez. Prestakuntza hori herritarrei, prozedurak izapidetzen dituzten pertsoneri eta erabakiak hartu behar dituzten agintariei zuzendu behar zaie.



- **Neutraltasuna.** Parte hartzeak ez du ekarri behar prozeduran interesdun diren pertsonak parte hartzeagatik inola ere zigortuak izatea. Agintariek eta funtzionarioek errespetuzko tratua eman behar diete herritarrei.
- **Gardentasuna.** Parte hartzeko prozesua baino lehen, bitarteko egokien bidez administrazioak daukan informazio guztia jakitera eman behar da. Era berean, administrazioak formula elektronikoak bilatu behar ditu egiten diren dokumentu edo izapide berriak zabaltzeko (interesdunen artean behintzat). Era berean, emaitzari buruzko informazioaren barruan, erabakiari buruzko informazioa, aurkeztutako alegazioei buruzko informazioa eta parte hartzeko prozesuari buruzko informazioa sartu behar da.
- **Erabaki irekia.** Funtsezkoa da parte hartze prozesu bat irekitzea erabakia zabalik dagoenean. Aldez aurretik hartutako erabaki bat egoteak esan nahi du fede onaren printzipioa eta interesdunen konfiantza legitimoa desagertuko direla prozesua sustatzen duen administrazioarekiko. Plan eta programen ingurumeneko ebaluazio estrategikoan baloratu behar diren aukeren artean, esku ez hartzeko aukera kontuan izan behar da (0 alternatiba).
- **Benetako parte hartzea.** Eztabaida prozesuak zenbait bitarteko eduki behar ditu, dokumentazio guztia eskuratu ahal izateko, eta ohar eta proposamen guztiak idatziz edo eskatzaileak parte hartzen duen "*entzunaldiaren edo ikerketa publikoaren bidez*" planteatu ahal izateko. Auzitegi Gorenak, 2009ko otsailaren 16ko epaian, adierazi zuen entzunaldi izapidea ez dela betetzen espedienteak ukitutakoei jakitera emate hutsaz; aitzitik, "*elkarrizketako, parte hartzeko eta errespetuko*" prozedura bat egin beharra dago. Zenbait mekanismo daude elkarrizketa hori bultzatzeko (herritar foroak, herri epaimahaiak). Gainera, parte hartzeko aurreikusten diren epeak nahikoak izan behar dira. Beste inguruabar garrantzitsu bat herritarren oporraldiak kontuan izatea da.
- **Benetako parte hartzea.** Parte hartzea benetakoa izan behar da eta emaitzan eragiteko gaitasuna izan behar du. Betiere kontuan izan behar da eta baloratu behar da. Administrazio eskudunak proposamenei beren-beregi erantzun behar die. Erantzunean, proposamenak onartzeko edo ukatzeko arrazoiak azaldu behar dira, proposamenak lasaitasunez irakurri ondoren. Horrela, esan genezake entzunaldi publikoko izapidea behar bezala bete dela.
- **Segurtasun juridikoa.** Parte hartzeak esparru juridiko propioa eskatzen du, eta ondoko hauek izan behar ditu barnean: parte hartzeko prozesuaren oinarri diren printzipioak, aplikazio eremua, funtzionamendu arauak eta, oro har, integratu nahi diren gizarte zibilaren estamentu edo sektoreen identifikazioa.
- **Adiskidetzea eta prebentzioa.** Parte hartzea, interesdunen ekarpenak erabakiak hartzerakoan bideratzen dituen metodo gisa, gatazkek konpontzeko mekanismo baliotsua ere bada.





## V. Gomendioak

- Eusko Jaurlaritzak, estatuko oinarrizko legeriatik abiatuta, gure autonomi erkidegoaren barruan arazo publikoetan herritarren parte-hartzea arautzen duen legea proposatu behar du. Arau horrek esparru juridiko propioa finkatu behar du eta pertsonak, norbanako gisa edo elkarte bidez, parte hartzeko duten eskubidea arautu behar du, gomendio honetan azaldutako printzipioak oinarri izanik.
- Ingurumenari dagokionez, lehentasuna da Eusko Jaurlaritzak printzipio hauek eta Aarhuseko Hitzarmenetik ondorioztatutakoak egokitu ditzala Ingurumenaren maitzaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean.

Arau horretan, ingurumen kontrolaren mendeko jardueretan (ingurumeneko baimen integratua, ingurumen eragineko ebaluazioa, sailkatutako jarduerarako lizentzia eta jakinarazitako jarduerak) eta ingurumenean eragin esanguratsua izan dezaketen plan, programa, politika publiko edo tresna araugileetan parte hartze errealak eta eraginkorra bermatzeko mekanismo nahikoak ezarri behar dira.

- Udal ordenantzak. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek herritarren parte-hartzea arautzen duten araudiak onartzea sustatu behar dute, batez ere ingurumeneko araudia.
- Euskal administrazio publikoek bitarteko nahikoak eduki behar dituzte legeria honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko. Bereziki, tokiko administrazioek ahalegina egin behar dute bitarteko tekniko, material eta pertsonalak ere eskuratzeko, erabaki prozesuak eraginkorrak izango badira. Era berean, ingurumen heziketako planak eskaintzeko bitartekoak jarri behar dira. Heziketa hori herritarrei, prozedurak izapidetzen dituzten pertsonari eta erabakiak hartu behar dituzten agintariei zuzendu behar zaie.
- Beharrezkoa da administrazio publikoek parte hartzeko mekanismoak eskaintzea, ingurumenean eragina duten jardueren funtzionamendutik eratorritak diren gatazkak kudeatzeko, eta mekanismo horietan herritarrak eta interesdun elkarteak ordezkatzeko, eta mekanismo horietan ezinbestekoa da dagoen informazio guztia etengabe eskueran egotea eta alderdien artean komunikazio bideak finkatzea. Halaber, parte hartzeko prozesuak baliotsuak dira ingurumenean eragin txikia duten baina gizartean ondorio handiak dituzten jarduerak sortzen dituzten beste gatazka batzuk behar bezala kudeatu ahal izateko.
- Parte hartzeko dauden prozesuei dagokienez, uste dugu dagokien administrazioek bitarteko eta borondate politiko nahikoak eskaini behar dituztela kalitateko oinarrizko estandar batzuk betetzeko, ingurumeneko auzietan parte hartzeko, planteamendu hauetan oinarrituta:





- Agintariak eta administrazioko langileek parte hartze prozesuetan parte hartzen duten eragile guztiek elkar errespetatzea erraztu behar dute, batez ere interes kolektiboak defendatzeko eratzten diren elkarten kasuan.
- Administrazioak ingurumen espedienteetako interesdunak identifikatu behar ditu, espedienteetan interesdun gisa agertzeko eskatzeko, ofizioz. Deialdi hori, batez ere, parte hartzea dagokion ingurumen prozesuaren inguruan sortutako edo kokatutako elkarteei zuzenduta dago. Gizartea aurka egon daitekeela aurreikusten den kasuetan, administrazioak alde aurretik eztabaida erraztu behar du sustatzailearen eta interesdunen artean.
- Parte hartzeko prozesua baino lehen, bitarteko egokien bidez, administrazioak daukan informazio guztia jakitera eman behar du. Administrazioak formula elektronikoak bilatu behar ditu egiten diren dokumentu edo izapide berriak zabaltzeko (interesdunen artean behintzat).
- Parte hartzeko aurreikusten diren epeak nahikoak izan behar dira parte hartzeak bere helburua bete ahal izateko. Legeriak kontuan izango ditu oporraldiak parte hartzeko epeak finkatzeko orduan. Ezarritako epeen luzapena proposatu ahal da denboraldi horretako hilabeteen artean abuztua badago.
- Parte hartzeko prozesuak proposamen ireki batetik aurrera egin behar dira. Ingurumeneko ebaluazio estrategikoan baloratu behar diren aukeren artean, esku ez hartzeko aukera kontuan izan behar da (0 alternatiba). Eztabaida prozesuak zenbait bitarteko eduki behar ditu, dokumentazio guztia eskuratu ahal izateko, eta ohar eta proposamen guztiak idatziz edo elkarrizketa bideratzen duten parte hartzeko beste teknika batzuen bidez (herritar foroak, herri epaimahaiak) planteatu ahal izateko.
- Era berean, funtsezkoa da prozedurak pertsona interesdun guztiek emaitzari buruzko informazioa jasotzea. Informazio horren barruan, erabakiari buruzko informazioa, egindako alegazioei buruzko informazioa eta parte hartze prozesuan duen eraginari buruzko informazioa sartu behar da.

